

ttipi-ttapa

1990eko Uztailak 19

42. zenbakia

dohain banatzen da

Baztandarren Biltzarra 90
Uztailaren 22an Elizondon



Bortziriak eta Malerrekan:

Ikastaro intentsiboak

ALFABETATZEN eta EGA:

- ABUZTUA 6 - 31
- Ordua: 9etatik 1etara

Barnetegiak



Bortziriak eta Malerrekako IKA

NON-ZER

- 4. Beharrezko telefonoak.
- 5. Agenda.
- 6. Irakurleak mintzo.
- 7. Hontaz eta hartaz.
- 9/27. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Donamaria-Gaztelu, Elgorriaga, Urda zubi, Goizueta.
- 28. Erreportaia. P. MAÑONE
- 30. Elkarrizketa. P. LARRETxea
- 32. Kirolak. R. HARRIBILAGA
- 33. Osasuna. O.M.T.
- 34. Merkatu Ttikia.

Orain dela 27 urte ekin zioten Baztandar guziak elkartzeko asmoz, Baztandarren Biltzarra izeneko besta egiteari. Aurtengo edizioa, Nafarroa Euskalerrria lemarekin, uztailaren 22an ospatuko dute. **28. or.**



Uztailaren 24ean, eguerdiko 12etan botako den altxaferuarekin batera hasiko dira 6 egun iraunen duten bestak Elizondon. Erdiko orrialdeetan, egitarauaren xehetasunak ikus ditzakezue. **17-22. orr.**



"Guretzat euskal sustraiak eta euskal kultura oso inportanteak dira" erran ziguten Josie eta Denise euskal arbasoak dituzten Iparmerikar neska gazteek, Doneztebe-ko IKA Barnetegian euskara ikastaroan zeudenean **30. or.**



Josemari Irazoki, dugu azken aldiotan aurrerapen garrantzitsuenak ematen ari duen atleta beratarra. Denbora markarik hoberenak, 6,9" 60mtan eta 10,8" 100mtan. Ez da makala, ez horixe! **32. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortziritako Euskara

Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Mañone, Leitzaiko Ikastari Euskaltegia, Patxi Petrirena, Olain Elkartea, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Patxi Larretxea, Mattari eta OMTk

Inprimategia: Jomisa (Irun)

Tirada: 3.000 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen halabeharrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	594300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	594183
Sunbilla	594283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera	630929 / 630036
Etxalar	635105
Urdazubi	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	251500
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	262700
Gurutze Gorria	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	594242/594342
DYA	
Lesaka (larrialdiak)	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Lesaka	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leizaran	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	594335/594336



Harrera arrakastatsua Udalak beratar kirolariei eskeinia. Udaletxeko Areto Nagusia beteta zegoelarik arrakastatsua gertatu zen, kirol gaien izan den gorakada dela eta, herriko kirolariei eskeinitako harrera. Ongietorria eman ondoren, Alkateak eskertu egin zien denei beren ahaleginengatik. Oroitgarria jaso zutenen zerrenda honako hauek osatu dute: Helduen Gure Txokoa Futbol Taldea, Jaime Elgorriaga, Inaxio Errandonea, Josemari Irazoki, Futbol Aretoa Gazte Taldea, Luis Mari Urkiola, Luis Irazoki, Javier Calvo, Futbol Aretoa Haur Taldea, Uxane Ikastegia, M. Jose Eltzaurdia, M. Kruz Altzuguren, M. Nieves Elgorriaga, Felipe Saragueta, Luis Pikabea, Luis M. Retegi, Kepa Arretxea, Mikel Larretxea, Gorka Arretxea, Joseba Aranibar eta Hasier Saragueta.



Herrietako izenak agertzen diren trafiko seinale berriak. Orain berriki Nafarroako Gobernuak Trafiko seinale berriak paratzeari ekin dio. Seinale hauek euskaraz eta erdaraz agertzen dira baina zenbait seinalek akatsekin idatzirik agertzen dira. Honelako gauzak egiten direnean norekin kontsultatzen duten jakiteko litzateke, normalean erderazko bertsioa ongi idatzirik agertzen da baina Etxalarko Bentetan Lizaietako gaina seinalatzen duen tokiak bi hizkuntzaetan "Zizaietako gaina" paratzen du.

21 LARUNBATA

—**Elizondo**, Baztandarren Biltzarren bezperetan, gau-pasa, Bries eta Kanka musika taldeekin.

22 IGANDEA

—**Elizondon**, Nafarroa Euskerria lemapean, Baztandarren Biltzarra bestaren edizio berri bat. Orga apainduen desfilea, mutildantzak, herri bazkaria merkatuko zelaian (1.500 pzta.), bertsolariak, abeslariak, dantzariak, trikitilariak, harri jasotzaileak, txingak, sokatira probak, aizkolariak eta bertze hainbat ikuskizun egun eder bat pasatzeko moduan.

25 ASTEAZKENA

—**Baztan Bidasoako** Kirol Elkarteak zabalduetako laguntza

deialdira aurkeztu ahal izateko azken eguna.

28 LARUNBATA

—**Beran**, pistzinetan, goizeko 11.30etan, Bortzirietako Igeriketa txapelketa.

29 IGANDEA

—**Leitzan**, arratsaldeko 5etan Baztan Bidasoako Herri Kirol Txapelketaren bigarren topaketa.

Parte hartuko dutenak: Leizta, Zubieta eta Basaburuako taldeak.

Modalitateak: Sokatira eta proba konbinatuak.

LEHIAKETAK

—**"VI. Bidasoa"** Bertso paper Lehiaketa:

Bidasoa eta Baztan eskualde-

tan eta Sara, Azkain, Urruña eta Oiartzun herrietan bizi direnentzat antolatua da.

Adinaren arabera hiru maila izanen dira: A) 14 urtetarainokoak, B) 14 - 16 urte bitartekoak, eta D) 16 urtetik gehiagokoentzat.

Sariak eta oinarriei buruzko xehetasun gehiago jakiteko edota lanak bidaltzeko, telefono eta helbide honetara zuzen zaitezketek: *Gure Txokoa Elkarte*a, *Jamotenea - Eztegar*a ibilbidea z/g, *telefonoa 63 03 14, 31780 BERA (Nafarroa)*.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Uztailaren 21-22an**, Lesaka, eta F. Iturralde (Elizondo).

—**Uztailaren 28-29an**, Etxalar eta F. Lezaun (Elizondo).



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

ETXEGARAI *Telebistak eta Bideoak*

Antena kolektiboak eta banakakoak

**ELEKTROGAILUAK
BIDEO KLUBA**

konponketa tailerra

Eztegara, 4 Tfnoa: 63 05 70 BERA

TRANSPORTES DEL BIDASOA S.C.L.

DELEGAZIOAK:

BULEGO NAGUSIA

Bittiria 32 - Tfnoa: 63 78 75
LESAKA

**BARCELONA
MADRID - Coslada
VALENCIA
SEVILLA**

Lara

MUSIKA DENDA

ZERBITZU
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guziak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Lekarozko eskola lortzeari buruz

Hor bada, izan dadila! Leku eta gauza guztien antzera alde onak eta txarrak izanen ditu, abantailak eta oztopoak. Gehiago! Hori onartzera bortxatu gaituzte eta hemendik aurrera horren alde egin behar dugu lana, zalantzarik gabe...Lekarozko eskola Baztan-Bidasoa-Malaerrekako Institutoa bihurtu behar dugu.

Hala eta guztiz ere salatzekoa da, eta salatu behar dugu, lortu dutenek, erne lana egin dutenek, alegia, izugarri berekoiak izan direla, Jesuitikoak: "Helburuak, bitartekoa justifikatzen du". Ikasle eta gurasoak ordaindu dute, kurtso batez, eta kurtso berdinean irakasleak gorriak pasa dituzte. Sinisten ez baldin baduzu, joan eta galdetu!


Sekulan klase emateko zirenak aukeratu zituzten, pribadako ordutegi ezarri eta kurtsoa Baztango Udako arduradunarekin —Pedrosa jaunarekin— mintzatu gabe bukatu dute,

hainbertzeetan saiatu... ez bait zuten lortu.

Orain berriro normaltasunara omen dator, baina "eskola berezia" izanen da, dudarik gabe. Ez itsasontziz, ez karrikutxez, baina bai eskin batean. Ongi etorria izan dadila!

Juan Inazio

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

FONDA XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

LOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3. - BERA - 63 07 86




100m²ko etxebizitza
48m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest

Oieregin, Bertiz eta Udako Unibertsitate izanen denaren ondoan, luxuzko pisuak, garaje eta jardinekin.

Informazioa: EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54



130m²ko etxebizitza
58m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest



Bortzirietako Euskara Mankomunitatea (I)

Iharduera luze eta kementsu baten emaitza

Duela urte batzuk Bortziritarrek euskararekiko zuten kezka arian-arian indartzen hasi zen.

Horrela, 80. hamarkadaren hasieran *ttipi-ttapa* euskara hutsezko aldizkari herritarren argitalpenari ekin zitzaion.

Irakaskuntzan, euskarak sarrera izaneñ du Ikastolen sorrerari esker eta Bortziritarrek oinarritzko ikasketak, orduarte ez bezala, ama-hizkuntzan egiteko aukera izanen dute.

Hamarkadaren erdi-aldera berriz, Bortziritarren ekimenez, herritarrek euskalduntzeko eta alfabetatzeko premia ikusirik Euskaltegia sortu zen.

Bertzalde, ezin aipatu gabe utzi herrietan euskararen egoeraz, geroaz eta normalizazioaz kezkatuak diren Euskara Batzordeak.

Gaur egun Bortzirietako Udalek euskararekiko azaltzen duten ardura talde guzti hauen lanaren ondorioa



Bortzirietako Azterketa soziolinguistikoaren laburpenaren azala

bertzerik ez da.

Hastapenak, azaldutakoak izanik, gaur egungo egoera hagitz baikorra dela erran dezakegu.

Jadanik, Siadecoren lanari esker, Bortzirietako azterketa soziolinguis-

tikoa burutua dago; hala nola, azterketaren aurkezpena, laburpena, erakusketa...

Aurrera begira, Bortzirietan euskararen normalizazio bidean garrantziko erreferentzi puntua izanen da azterketa hau ezpairik gabe.

Dohainik banatzen den *ttipi-ttapa* aldizkariak, ez Bortzirietako bakarrik, baizik eta Nafarroaren iparralde eta Lapurdi eta Gipuzkoako zenbait herritako euskal irakurlegoa bereganatu du goi mailako lan profesional eta bikaina eskeiniz.

Hasiera batean Ikastolek bultzatutako euskarazko irakaskuntza erabat finkatua dago gaur egun; gainera ez Ikastoletan bakarrik, baita Eskola Publikoetan ere, bertan euskal adarrak nagusitzen ari zaizkigularik.

JON GORROTXATEGI

Bortzirietako Euskara Zerbitzuaren arduraduna

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

GRUPO  ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 58 70 00

TXOKO
ERRETEGIA
Bazkari, afari eta gosariak ematen dira
ITUREN
Tfnoa.: 59 44 91

OSKORRI LIBURUDENDA
Petriena Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL
BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

**MALERREKAKO
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA**

LANPOSTU DEIALDIA

Malerrekako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, **BI LANGILE** behar ditu Etxeetako Asistentzi Zerbitzurako.

Betebeharrak:

- ▼ Hemezortzi urte beteak izatea
- ▼ Langabezian egotea
- ▼ Euskaraz jakitea
- ▼ Gidatzeko karneta edukitzea

Inskripzio epea uztailaren 8tik 31ra izanenda, Doneztebeko Osasun Zentroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, astelehenetik ortzirralera goizeko 9etatik ordubetetara.

PIZZIO OSTATUA

Tfnoa.: 63 07 88
Altzate - BERA

Drogeria MOLINERO



Paper pintatual
Pinturak
Moketak
Drogeria

Tfnoa: 59 40 54
Eztegara19
BERA



NOVA-COMPUTER

Errekurtso Informatikoen Zentrua

Rio Alzania 23, Tfnoa: 247023 - 31006 IRUÑEA

IKASTAROAK:

- ✓ MS-DOS Sistema Operatiboa
- ✓ Testu Prozesatzea
- ✓ Kalkulu orria
- ✓ Grafikoak

Martxan diren kurtsoak:

- ✓ ELIZONDO, IRURITA, ORONOTZ, LEITZA, BERA

Hemendik gutxira:

- ✓ BERA, LESAKA, DONEZTEBE

GARE Saneamenduak

**Mobleak eta bainurako tresnak
Iturgintza eta kalefakzioa**

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87



**Previsión Financiera
Aseguradora General Ibérica**

ERA GUZITAKO ASEGURUAK:

BIZIA, ISTRIPUAK, ETXEAK, SUTEAK,
IBILGAILUAK, DENDAK, ENTREPRESAK

Aurrekontuak konpromisorik gabe

Tfnoa.: 58 03 22
Gotzain Berekoetxea, 5
ELIZONDO

Arau sorosgarrien erabateko onarpena argitaratuko laster



Altzaten, Zia erreka bertzaldean, plaza berri bat antolatuko da

ROMAN HARRIBILAGA

Osoko bilkuran Udaltzako bere "jabeturik"oa eman dio Iruñeko Gobernuko Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiroko Sailak Berako arau sorosgarrien aldarazketari.

Aldarazketa garrantzitsuenak

Nahiz eta aldaketa ugari bildu Berako hirigintzaren aldetik, arau sorosgarriek Altzate, Illekueta, Agerra eta Zuzkidura —igerilekua eta Lanbide Eskola ingurua— hirialdeak, baita baserri, industri eta ibaialdean ere eraginen dituzte.

Era honetan, hirialdeari dagokionez, Altzate auzoko inguruek aldaketa nabarmena ezagutuko dute bere hegoaldean egiten den futbol zelai berriarekin. Aldi berean, karrikerrepide berria egiten da Eztegarra Ibilbidetik hasi, Toki Ona futbol zelaiaren atzetik igaro eta Matzadako zubiraino iritsiz, Sarro alderdiko

aldapan barrena Sararanzko errepi-deraino jarraitzeko ahalbidearekin.

Karrika honen hegoaldean kokatuko dira egin beharreko futbol zelaiak eta atletismo pistak; iparraldean berriz, hirialde berria eraikiko da, bizitza bakarreko eta gehienez bi bizitzako goierako etxe bereizirekin. Altzaten ere, Zia erreka beste aldean, plaza berri bat antolatuko da.

Bestalde, eraikintza eremua zabaldurik geratuko da, hemen ere bizitza bakarreko eta gehienez bi bizitzako goierarekin, oraingo hirigunea ixteko. Halaber, igerileku eta Lanbide Eskolako inguruetakozuzkiduraldea zabaldurik dago.

Agerra auzoak ere aldaketa garrantzitsuak izanen ditu. Txantre-keginiko etxeetatik hasita parke bate-tarako Zuzkiduraldera hedatuko da, eta Berako gunerainoko zelaiak hiritu. Hemen, lehen etxeak bizitza bakarreko eta gehienez hiru bizitzako goierarekin eraikiko dira, berro-

geitamar etxe inguru Udalak bultzaturiko herri sustapenekoak izanez; hemendik aitzinera eta hiriguneraino, eraikuntzak bizitza bakarreko eta gehienez bi bizitzako goierarekin.

Bertze aldarazketak

Adierazitakoei bertze hiri aldarazketa ttikiak erantsi behar zaizkie, hala nola, Zubizabal aldean, bertze plaza bat Herriko Etxearen ondoan, eta zenbait etxeren atzeraketa. Baserrietako industria ttikiaren ariketa legeztatu egingen da, Zalain aldean Bidasoaren araztegia paratu, errekekiko neurriak hartu uholdeak eragotzi asmoz, botatzeko zegoen Petritxko errota eta errementaldegiaren berreraiketa, Zalainerako bidearen maraketaren aldarazketa, auzo bereko parke berria saihesbidearekiko pantaila bezala erabiltzeko eta bertako bide plangintza.

Baserri eta Industrialdea

Tarte baldintzak kendu egin dira baserrialdean etxeak eraikitzeko, bertze baldintzak aldiz bete beharko direlarik: orubea eta bidearen artean 25m guttienez, zabaltzeko dagoz-kion uzkontzekin eta lurraren arabera 3.000m²ko azalera edukitzea. Eraikitzeko erraztasunak eskeini asmoz, orubearen makurduraren eskaturiko portzentaia beheratua izan da.

Udalak, Zalaingo Industrialdea zabaltzeko asmoz, 30.000m² azalera eremua gehitu du idatziriko arau sorosgarrietan, baina Iruñeko Gobernuak onartu ez duenez gero, erre-kurtso baten erabakiaren zain dago.

LESAKA

Zezen plaza

M.K.T.

1854ean Pasaian Santiagotan gertatutakoa aurten 1990ean Sanferminetan Lesakan gertatu da. Denok entzunak ditugun Xenpelarrek bertso moduan jarritakoak.

Pasaiaiko herritik dator notizia zezen bat izan dala jenioz bizia kontatutzeroa noa bistan ikusia alegratzeko triste dagoen guzia

...

Honetaz, *Navarra hoy* egunkariak sorpresa bat eman zigun, dirudienez eta herrikoak enteratu gabe, zezen plaza omen dugu Lesakan. Hasieran berria irakurri eta Lesako Plaza Zaharra, zezen plazaz hartzen zutela pentsatzeko bidea ematen zuen baina irakurketa jarraituz "el coso" aipatzen zuen eta ez, ez



zen gure Plaza Zaharra baizik eta beraien ustez daukagun zezen plazaz ari ziren eta bertan gertatutakoaz.

Susto ederra hartu genuen zezenak traba hautsi eta kanpora ateratzen ikusi genuenean, bi zauritu ere izan ziren dagoeneko espero dugu beren larritasunetik ateriak izanen direla.

Azken hilabete hauetan karrikak hankaz gora bazeuden ere bertze ale bateko berrietan aipatzen genuen

bezala, karrikak breaztatu dituzte nahiz eta obra oraindik bukatua ez egon. Normalean nahiko zikinkeria biltzen da urtero eta breaztatu gabe egonez gero ezinezkoa litzateke behar bezala garbitzea.

Giro aldetik eta beti bezala aurtengoan ere ezin hobea izan dugu ortzirailean hasita astearte bitarte jende aunitz ibili da. Ortzirailean eta larunbat gauen kanpotar aunitz ikusten zen.

ETXALAR

Baserrietarako bide proiektu berria

PELLO APEZETXEA

Baserri auzoetako bide nagusiak iaz breaztatu izanagatik, zenbait adar eta zati egin gabe daude oraindik, auzoko pistaren adarrak edota bakarka kokatuak dauden baserritakoak. Hauetako gehien zolak breaztatzeko egitasmo edo proiektua, Gabriel Silva eta Alfonso Vaz-

quez injeniariei eskatu die Udalak. Gehienak erratean, baserriar gehienak eskatu dutela erran nahi da. Hauexek ditugu breaztatzeko eskatutako bideak: **Larrapil auzoan:** Iturraldeko borda, Domekeneko borda eta Lakateneko bordara; Armitxeko atakaraino; Oiarburua eta Gorostipaleko bordara. **Orizki auzoan:** Joanperosenoko bordatik

Mendiondoko bordara; Arrosetako bordatik Mendiondoko bordara; pirutegietara, Urtzalleneneko borda eta Tolareko bordara; Ursumiatsetik Saroiberrira. **Lakain auzoan:** Etxauriko bordako (Arrua) zubiraino; Etxagaraiko bordara; Aldalurko bordako iturritik Garaiko bordara.

(bertze aldean segitzen du)



Lurriztiederra auzoan: Meakatik Katton bordara; Guantxegaraira. Zumeldiko erreka bidea.

Auzo izen berriak

Aunitz ez bada ere, etxe berriak han-hemenka altxatzen ikusten ari gara, azkenaldi honetan egitasmo edo proiektu gehiagoren berriak zabaldu direla. Ereku berrietan kokatzen direnez, bi auzo berriren mugapen eta izeneztapena erabaki du Udaltzakoak, Behekolanda eta Goikolanda izenez ezagutuko ditugunak aintzinerantzean. Landaburutik beheitirantz, erreka ezkerrekoa, Behekolanda, Goikolanda, berriz, Buxunea ondotik Aldaitegira doan marra baten eskuinaldea, Iriberrri eta Gurutze barnean gelditzen direlarik.

Erretako mendi eremuen berriztapena Nafarroako Gobernuak onartu du

Diputazioak burutzea onetsi duena honako hau da: Egillu-en, 18 hektarea garbitu, 3.100 metrota-ko zerrakura egin eta Douglassi izeneko landarea sartu, Loietako behekaldean, 11 hektarea garbitu ondoren, 12.500 "Radiata" pinu eta



Jubilatuendako egonlekua egokitzen 8.000.000 jarriko ditu Udalak

12.000 Douglassi paratu. Baina bada zerbait gehiago ere. Marimigelneko Borda eta Arotzeneko Bordaraino doan pistari bi metrota-ko zabaldua gehituko dio 1.500 metrotan, berri-ren segidan bertze 1.700 metrota-ko pista berria irekiz. Hala ere, Udaltzako zerbait gehiago lortu edo kontse- gitu nahiz dabil oraindik.

Osasun etxean elektrokardiografoa

Bihotzaren funtzionamendua eta bere gora-beherak paperetan markat-

zen dituen aparailua izanen dugu herrian bertan. Jabier Baiona medi-kuak eskatuta, Udaltzako onetsi egin du elektrokardiografoaren eros- keta, 274.000 pzta, kostako dena. Larritasun eta arrisku haunditan lehenbaitlehen ospitalera joatea bada ere hobereena, osasun kontrol kanpai- natarako, zeinak gero eta ugariago egiten baitira, komenigarri gertatu- ko da, bai bertze zenbait kasutarako ere. Hori da medikuaren beraren eritzia edo iduria, Udalarri ere arra- zoizkoa iduritu zaiolarik.

IGANTZI

Igantzikoko Bentako zentral ttikia martxan berriro



OSKAR TXOPERENA

Azkeneko hilabete t'erdiz zulo batengatik gelditua egon baldin bada Bentako zentral ttikia, martxan dago berriro.

Tubo zati berri handia paratu dute hondatu zen lekuan (argazkian agertzen dena hautsita zegoena da), horretarako izugarritzko gruak erabi-

(bertze aldean segitzen du)



li dituztelarik. Espero dezagun inguruko etxeentzat ziurtasun handia ematea, izugarritzko apurua pasatu baitzuten azkeneko istripuan.

Bestatako bilerak

Bilerak aldizkari honen bidez deitzen badira ere hagitz jende gutti agertzen da, azkenekoan bi lagun.

Ez dago dudarik gero jende nahiko izanen dela hau gaizki dagoela, hura ez dagoela etabar errateko. Hemen horrela funtzionatu ba beti eta hala jarraituko dugu.

Haurren pilota txapelketa

Joan den hamabortzaldian pala txapelketaren berri ematen bagenuen oraingoan hurrei tokatzen zaie kirolen lekua. Hor omen dabilta Bil-tokikoek jo eta ke haurren arteko pilota txapelketa antolatu nahirik, eta dagoeneko bikote mordoxka polita bildu omen dute. Badago haurren aldetik ere zerbait jokatu ahal izateko gogoia, azken aldi honetan maiz

ikusten baitzaie pilotan.

Aintzineraxiago bikoteen berri emanen dugu, denbora izanen baita denetarako

Piedadeko uren aipamena

Bortzirietako azkeneko osasun kontseiluaren bilkuran aipamen bat izandu zen Nafarroako uren arduradunaren aldetik Piedadeko urentzat.

Aipamen hau uraren klorazioari buruz izan zen, aparatoa aspaldi honetan paratua baldin badago ere, martxan jartzen ez delako. Egoera hau arriskutsutzat jo zuen arduradunak, batez ere kaptazioak edo iturriak ez daudelako nahiko babestuak. Herriko ura oraintxe egoera onean dagoenean ez litzateke txarra Piedadeko ura behar bezala paratzea ere.

Errepideko zenbait biragunen moldaketa

Igantzikoa Bentatik Arantzara

doan errepidea hagitz arriskutsua dago zenbait biragunetan. Igantzikoa harrobiko kamioak direla eta betez ere.

Arazo honi irtenbide bat eman nahirik, hiru edo lau lekuri txarrenek moldatu asmotan, hor ibili dira Nafarroako bide arduradunek markaketa batzu egiten.

Laister hasi behar omen dute lanean, 8.300.000 miloiko aurrekontua duen lan honek. Bertze batzuren artean hauexek omen dira moldatu beharreko biragunak: behetik gora hasita lehendabizikoa Iribarregobordako sarrera azpian dagoena, gero Kruzero azpiko lehendabizikoa, Iozango sarrera azpian dagoena eta azkenik Olazarreko sarrera ondoan dagoena.

Dudarik gabe, lan hau betez gero arrisku zati handi bat kenduko litzaioke errepideari.

SUNBILLA

Bestetako programa prestatuxea dago

Abuztuaren 10etik 14ra izanen dira



Sunbillako Herriko Etxea

PATXI PETRIRENA

Udala eta Ulibeltzak elkarteak dira besten antolakuntzan parte hartzen dutenak, urtero bezala. Udalaren gain doazen ikuskizun eta ekitaldiak honako hauek dira: eguneroko musika, karts deitutako kotxe ttikien karrera eta profesionalen arteko pilota partiduak. Gainerako ikuskizunak Ulibeltzak elkarteak hartzen ditu bere gain, denetara 1.100.000 pezetako diru gastua duenak.

Egunez egun banaturik, oraindik zehaztasun batzuk falta badira ere, hauxe izanen dugu:

Abuztuak 10, ortzirala: Arratsaldeko 8etan botako da altxaferoa, eta ondoren tanborrada, txaranga eta gaueko dantzaldia.

Abuztuak 11, larunbata: Meza nagusiaren ondoren herriko dantzari eta trikitilariak ariko dira, eguerdi aintzinerako profesionalen arteko pilota partiduak daudelarik iragarriak. Arratsaldean bizikleta karrera.

Abuztuak 12, igandea: Goizean, herriko pala txapelketako finalak eta mus txapelketa. Arratsaldean herri

(bertze aldean segitzen du)



kirol erakusketa: aizkolariak, Perurera harrijasotzailea, sokatira, txingak eta abar.

Abuztuak 13, astelehena: Goizean karts karrera eta tiro al plato. Arratsaldean, berriz karts lasterketa.

Abuztuak 14, asteartea: beste amaiera emateko bertso saioa eta zikiro jatea izanen da.

DONEZTEBE

Doneztebetik Sunbillara, trenbidea berritu asmo dute

Lau-herrietako mendien probetxurako izanen litzateke

TXEMA ALDABE

Oraindik trenbidea konpontzeko dirulaguntzak ofizialki onartu ez badira ere, ziurrena da berrituko dela. Beti ere moldatu den zatia Doneztebetik Subilla alderako bidea izanen litzateke. Lau-herrietako eremuan, Doneztebe, Elgorriaga, Sunbilla eta Narbarte bait dira honen hardura dutenak. 120 milioi inguru gastatuko litzateke moldaketatan, hauetatik %60a Nafarroako Gobernuak ordainduko lukeelarik, hau da; 70en bat milioi. Gai nontzekoa lau udalen artean eginen litzateke.

Batek baino gehiagok pentsatuko du: aspaldiko asmoa beteko da, bizikletendako karrila azkenea! Ba, ez. Konpontzen bada, gehienbat Lau-herrietako mendien probetxurako izanen da, hau da; kamioiak ibiltzeko. Zementoz eginen den bide honetan, egia da ibilgailu mota guztiak ibiliko direla, karretera bihurtuz, baina estu xamarra izanen denez, txirindularientzat arrisku-tua suerta daiteke.



Doneztebeko Herriko Etxea

Udal-lanpostuetan euskara eskatzearen aldeko mozioa onartu da

Nafarroako Parlamentuan eztabai-dutzen ari den Udal Administrazioen Foru Legearen Proiektua dela eta, gaur egun indarrean dagoen "Euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzen duen Foru Legea" k Udal eta Kontseiluei onartzen dien ahalmena ezabaturik uzten duela ikusirik, bertze zenbait Udaletan egin den modura, Doneztebekoan zera onartu zen:

1.a: Nafartar guztion ondare kulturala den euskararen berreskurapenaren aldeko lanetan parte hartzeko asmoa azaltzea.

2.a: Nafarroako Parlamentuan dauden talde politikoei Udal autonomia errespetatu dezaten eskatzea, entitate lokal bakoitzari baimenduz euskararen ezauguera zein lanpostutan izanen den beharrezkoa erabakitzearren.

3.a: Akordioa, Nafarroako Parlamentura bidaltzea eta komunikabideen bidez publiko egitea.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

Nerea

Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

DONAMARIA-GAZTELU

Herri lurren zera konpontzeko bidean

TXEMA ALDABE

Hiru urte bederen badira tirabiran, herri lurak direla eta. Bertze zenbait herritan bezala, Eratsunen errate baterako, iratze zelaiak %90ean katastroa zein eskrituretan agertzen dira. Azkenean badirudi arazoa konpontzeko bidean dagoela konbenioa onartu nahi dutenentzat.

Horrela, abuztuaren leian hasiko da betetzen konbenioak dioena. Donamariarako egin den konbenioak, 18 atal edo artikulua ditu. Laburbilduz, hauexek izanen lirateke oinarrizkoenak: Iratze zelai gehienak herri lurak dira eta gaur egun erabiltzen duenak, iratzea egiteko eskubidea du bakarrik. Eskrituretan agertzen diren iratze lekuetako %25ak partikularra edo jabegoa izanen du (hau 10 hektarea arte); %12a, hurrengo 15 hektaretan; %8a hurrengo 20 hektaretan eta %5a gainontzekoetan. Konbenio barruan ez lirateke sartuko, epaiketa edo juzizio baten ondoren, nahiz eta eskrituretan egon, Udalak irabazitakoak.

Honetaz aparte, badira ere zenbait atal iratze zelaietako arbolaz gain. Hala nola, gaztaindegi, hariziti



eta abarrerri buruz.

Ur-sare berria

Akitu berri dute Artzen dagoen ur-deposito generaletik Igurin auzoko depositora ura eramateko lanak. Uxarrea auzoko ur-sarea ere berritu da. Azkarraga auzoan gauza bera eta hemendik Gazteluko zenbait baserritara eraman ere, lan guzi hauen kostoa ia 14 milioitakoa izan da.

Idazkari laguntzailea hartu

Donamaria - Gaztelu, Oitz, Urrotz eta Beintza - Labaiengo la-

nak betetzeko idazkari laguntzailea hartu dute. Maribi Eulate izan da aukeratua, 6 hilabetetarako hasiera batean, INEMeko bulegora eskaera egin ondoren 4 aurkeztu ziren, bera eta hiru baztandar. Maribi izan zelarrik aukeratua.

Zortzi egunez lau istripu

Ez da, ez, normala herri ttiki batetan hau gertatzea. Kotxeak kamioien kontra eta elkarren kontra istripu larriak izan dira. Kotxeak xehetuak eta bat oraindik ospitalean.

ELGORRIAGA

Otxandorena I.ak Elgorriagako I. pala txapelketa irabazi

MIKEL IBARROLA

Otxandorena I.a txapeldun geratu zen iragan ekainaren 24ean Elgorriagako frontoian, Martiarena I.aren aurka jokaturako finalean. Hirugarrena, Olazar II.a suertatu zen eta

gero bertze 13 pilotari: P. Arrieta, Otxandorena II.a, J.M. Galarregi, I. Ibarra, Olazar I.a, Martiarena II.a, P. Mariezkurrena, K. Sukilbide, S. Migeltorena, Sanba, A. Eizagirre, J. A. Mariezkurrena eta P. Etxeberria.

Finala amaitu bezain laister, pi-

lotariek Elgorriagako Sukilbide ostatuan bazkari ederra egin zuten eta puruak erre ondoren trofeoan banaketa. Olazar I.a, Udalerriko kirol kontzejalak sariak banatu zizkien

(bertze aldean segitzen du)




pilotariei. Iturengo akordeoilari famatua den Ramontxo Mitxelenak alaitu zuen bazkaria eta giro ederrean, pilotariek, hurrengo urtean txapelketa berriz jokatzeko prest zeudela komentatu zuten.

Bestetako egitaraua

Uztailak 20, ortzirala: 8etan, altxaferua botako da bestei hasiera emanaz. Segidan, zopak herriko jattetxeetan. Gauetz gau-pasa Egan taldearekin. **Uztailak 21, larunbata:** 9etan kalejira eta 12etan arrantzza lehiaketa. Arratsaldeko 4etan Futbito txapelketa eta gauetz Atabal taldearekin dantzaldia. **Uztailak 22, igandea:** 9etan kalejira eta 12etan bertsolariak (Amorena, Elizagoien eta E. Fagoaga). Arratsaldean trikitixak eta gauetz dantzaldia Atabalekin. **Uztailak 23, astelehena:** 9etan kalejira eta 10etan pilota txapelketa. 11etan kross. 12etan jokoak eta arratsaldez dantzaldia Modestorekin. **Uztailak 24, asteartea:** 9etan kalejira. 10etan tiro al plato. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa eta gauetz dantzaldia Modestorekin. **Uztailak 25, Santiago Eguna:** 9etan kalejira. 10etan Meza Nagusia. 12etan Toka lehiaketa eta 2etan Zikiro Jatea.



Pilotariak sariekin.



Txapelduna. Otxandorena I.a

ITUREN

Arau subsidiarioak ikusgai idazkaritzan


IBAN ISASI

Udalak, Ituren eta bere auzoetan etxebizitzak egiteko arau edo norma subsidiarioak atera ditu eta hauen planoak hilabete batez egonen dira ikusgai Herriko Etxearen lehen solairuan. Idazkaritza dagoen lekuan eta idazkaria dagoen orduetan.

Lehengo barnetegia bukatu

Uztailaren hasieran etorri ziren Iturenara 25 neska mutil euskara ikastera. Euskara ikasten zuten bitartean bertako bestetara eta ingurukoe-tara joan ziren, ongi aski pasatuz.

Euskara ikasi omen dute izugarri.



ZUBIETA



JUAINAS

Uda eta uda... Zubieta haur, neska eta mutikoez josia dago, hau poza! Gaueko buila ez balitz! **Euskaldun berriak** etorri dira, ugarriak, hango etxe hartan eta hemengo honetan, gero eta arrakastatsua goa, esitosoagoa, bihurtzen ari delarik. Plaza inguruan izaten dira bilkurak, Dendaingokoek *public relation* papera osatzen dutela... eskerak eurei, benetan, herriko sinpatikoenak bait dira. Euskara ikastera etorri direnek, beurek, zubietar solasa enteinttu edo ulertu nahirik, nahiko lan! Begi zabal-zabalik, be-

larriak erne, hortxe egoten dira izardi patsetan! Majua izanen zen, banan-bana eta elkarrekin bukatu ondoren Zubietako giroa eta bizimodu nolakoa iduritu zaien jakinen bagenu. Esaten genuena: Euskerak bizi gaitu! Horrela bada!

Ez dugu, dena den ETBko laguntza handirik jasotzen. Hau zer da? Noiz izanen dugu aukera normala?

Malerreka goi-aldeko ETB gabezia

Aurreko berrietan esaten genuena esana dago, hori ez da aldatu:

teknikoa kobratzeko dago oraindik... konpon itxura egin du, harrez geroztik, baina ikusten denean, hagitx gaizki ikusten da. Hemendik, eta Ayuntamentutik, proposamen bat bidaliko dugu. Ezkurrako Udalak du gure elkartearen burua, antolatua dadila bilera orokor bat, udalak eta teknikoak bertan bildurik betirako soluzioa bideratzeko. Bietako bat: Sinkal-ekoak behingoz eta betiko konpontzen dute afera, behar bezala martxan ipiniz, edota beste tekniko bat ekartzen da... bere lana boltsako diruarekin ordaintzen zaio eta sobrantea baldin badago, Sinkal-ekoek emanen zaie... Euskal Telebista nahi dugu, behar dugu, hain ona ez dela ikusi ondoren esateko, besterik ez bada!

Biblioteka txar bat ireki behar da, udan, neguan ere erabiltzea posible izanen da. Manera, hauxe da: Txema bere "bulegoan" dagoen ordutegian —11,30etatik 12,30etara, gutxi gora behera— bertan dauden liburuetatik baten bat irakurri nahi baduzu, izena emanez etxera eramanez dezakezu, irakurrita bueltatzeko kondiziotan. On egin dizuela.

ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika
LESAKA

LUR BERRI



**KOOPERATIFA
Laborarien etxea**

Tfnoa.: 59 54 20 13
64310 SARA

Elizondoko Bestak

Egitaraua



Felix, Maurizio eta neska mutiko gazteak

Uztailak 24, Asteartea

Goizeko 12etan: Altxaferuen botatzea, Balleko Etxeko Kalerietatik.

Ondotik, Txistulari eta Gaitero Taldeak, Kiliki eta Erraldoiekin, herriari itzulia.

Gero ordu biak arte eta arratsaldean ere 8,15ak arte Txaranga ariko da herriko karrketan.

Arratsaldeko 8,15etan: Herriko alkatea, kargodunek, txistulari,

Iruñeko gaiteroak, kiliki eta erraldoiekin, Herriko Etxetik abiatu eta Elizara joanen dira. Elizkizunean, Salbea eta Done Jakoberen Ereserkia, Elizondoko Koralak abesturik.

Ondotik kiliki eta Erraldoiak karrketan.

9etatik 10,30etara: Dantzaldia plazan eta arratsean ere goizeko 4.30ak arte, dantzaldia EQUUS soinulariekin.



CRISTALERIA VELATE

- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikulua

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 - Tfnoa: 58 08 25
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5

herriz herri, bestaz besta

Uztailak 25, Asteazkena SANTIO EGUNA

Goizeko Argi-Soinua. Gaitero eta Elizondoko Txistulariekin.

Goizean 11,30ak arte, Txaranga soinua Karriketan. 11,15etan: Herriko eta Balleko agintariak, soinulariekin batera, Meza Nagusira.

Elizondoko Koralak abestuko du. Ondotik urteroko mutil-dantzak plazan; Agustin Eraso eta Fernando Leiza txistulari Elizondorrek.

Arratsaldean 8,30ak arte Txaranga karriketan. 7etan: "Baztan" pilota lekuan Euskal Kirolak. Iñaki Perurena, harrijasotzailea; Arria aizkolaria, zutik ezarritako 5mtako tantai baten muturrean ariko da lanean; Txinga jokoak; Aizkolariak, Mindegia aita-semeak eta Arria aita-



Mutil dantza dantzatzen Elizondoko Plazan

semeak. 8,30etatik 10ak arte eta afalondoan 4,30ak arte, Dantzaldia Orkesta LOS CLAN.

Uztailak 26, Ortzeguna
11etan: Kiliki eta Erraldoien, ibilaldia gaiteroekin.



FZ
FOTO ZALDUA

ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 59 43 64

IZETA ANAIK

Erloju eta bitxi denda

Jaime Urrutia 17 - ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Gortenea
OSTATU-JAETXEA

Baztango gauetako
martxarik jatorrena

Santiago karrika
ELIZONDO

Datucelay

SEAT



T. 58 02 25

ELIZONDO

Elizondoko Bestak



Dantzari gazteak

Ordu batean: Erresidentzian bizi direnentzat bazkaria, Elizondoko herriak emana. Gero dantzaldia.

6etan: "Baztan" pilota lekuan, bi partida eskuz pilotari hobereenen artean. Ondotik bertze partida bat erre-

montez, Baztango Erremonte Eskolako en artean. **Arratsaldean eta arratsean** Dantzaldia Orkestra Nueva Etapa.

Uztailak 27, Ortzirala

11etan: Kiliki eta Erraldoi, Txistulari eta Gateroekin, Igerilekuan, igerilarien Sariketa. **5etan:** "Azkona" Taldearen ekitaldia Elizondoko Plazan. **7etan:** Merkatu zelaian "Txokolatada" haurrentzat.

Egunero bezala eta ordu berean, dantzaldia plazan. SCALA 2000 orkestarekin.

Uztailak 28, Larunbata

9,30etaik 11,30etara: Txaranga karriketean eta Kiliki, Erraldoi, Txistulari eta Gaitero. Eguerdi aldean



**B. ALMANDOZ
OINETAKOAK**



**Oinetako en salmenta
eta konponketa**

Santiago karrika47
ELIZONDO

Es kisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO

**ANZABAL
AGENTZIA**

GESTORIA - ZURICH ASEGUROAK - INMOBILIARIA

SANTIAGO 15 Behea - Tfnoa: 580804 - ELIZONDO



**Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa**

Tfnoa.: 58 01 55

Santiago 40
ELIZONDO

BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



BAZTANESA, S.A.

Okindegia

Gotzain Berekoetxea, 3

Tfnoak.: 58 03 05 - 58 01 38

ELIZONDO

herriz herri, bestaz besta

berriz ere txaranga. **Bi orduetan:** Zikiro jatea. (Nahi dutenek eman dezatela izena uztailaren 22rako)

4etan: Bagordin "Plater Tiradia".
5etan: Txirrindulariak —alebin, infantil eta kadete— **5etatik 8,30etara:** Txaranga Berri Taldearen sonualdia. Egunero bezala eta ordu berean, dantzaldia JOSELU ANAIK Taldearekin.

Uztailak 29, Igandea

Goizeko 9etan: Txirrindulari Lasterketa, BAZTANGO ITZULIA 90 "Euskadiko Txapelketa". **10etan:** Bagordin "Plater Tiraldia" **10etan:** Kiliki, erraldoi, Txistulari eta Gaitero. Egunero bezala eta ordu berean, arratsalde eta aartsean Dantzaldia BASAKABI Orkestarekin.




Felix eta Maurizio, bestaz besta txistu jotzen

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



ELKAR

Auto Eskola

ELIZONDO 58 00 77

LESACA 63 78 70



SUMINISTROS YANCI

«GODIN» Tximiniak eta berogailuak
«TIFELL» Burdinezko galdarak (gasoleo eta egurra). Zerbitzu ofiziala.

BAINUAK ETA MOBLERIA
«PORCELANOSA» eta «VENIS»
zeramikak

Zaldubia industri poligonoan
Tfnoa.: (948) 580 109 **IRURITA**



TIFELL

Elizondoko Bestak

JAVIER Elektrogailuak

TB • Bideo • Soinua
Salmenta eta
konponketa

Saskaitz Plaza
Tf: 58 04 61 ELIZONDO

Almaco Baztan, S.A.



Eraikuntza eta saneamendu materialeak

Errepide Nagusia, Tfnoa.: 58 01 04 - ELIZONDO

Iruñeako Aurrezki Kutxa Munizipala



ZUK, HORRELAKO
TXARTEL BAT
BEHARKO ZENUKE

Tartel Lider bat.
Izpiritu gaztearekin,
xaulia,
erabilgarria
eta zeure
neurritara egina.



SAIOA OSTATUA

Santiago 68 - Tfnoa.: 58 01 94
ELIZONDO

BAI - ONA

Supermerkatua
Tfnoa: 58 04 53
ELIZONDO

LEIZA Elektrogailuak

Telebistak
Bideoak

Santiago 27, Tfnoa: 58 03 51 - ELIZONDO

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK
ETA ESKULANGINTZARAKO
MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Elizondoko Bestak



AMEZTI Ostatua

Bestak ongi pasa!

Santiago karrika, Tfnoa: 58 04 04 - ELIZONDO

ZUENDAKO Mobleak

Erakusketa eta salmenta

Jaime Urrutia 33, Tfnoa.: 58 02 02 - ELIZONDO



VIRGILIO Oinetakoak

1922 fundatutako etxea

Santiago, 32

Tfnoak.: 58 02 02 - 58 02 79

ELIZONDO

Oinetakoen konponketa garantizatua!

KANAN

OSTATUA

Txokoto karrika
ELIZONDO



Elizondoko bestak

Mena Argazkia

Guretzat hain bereziak diren egun hauetan,
herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!

GANI

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

Abuztuaren 5ean Amaiurko pilotalekua inauguratuko da

Pilota partiduak eta zikiro jatea izanen da igandean

MIRENTXU

Abuztuaren 5ean Amaiurko frontoia inauguratuko da

Inagurazio hau egiteko zenbait ekitaldi antolatu dira. Abuztuaren 4ean, larunbatean gauzez dantzaldia.

Abuztuaren 5ean, goizeko 10.30etan: Meza Nagusia


11etan: Inagurazioa eta luntzia

11.30etan: Pilota partidua txikien artean;

12.30etan: Pilota partidua pilotari hauen artean: Pierola eta Tapia, Otxoa eta Anduezaren aurka

14.30etan: Zikiro Jatea musika ere izanen delarik.

Bazkaldu nahi duzuenak izena emateko dei ezazue 58 10 21 tele-



Amaiurko frontoi berria orain dela hilabete bat ateratako argazkian

fonora, ofizina orduetan, uztailaren 28a baino lehen, horrela antolatzaileek diotenez ez zarete tokirik gabe

geldituko, bazkariak 2.000 pezeta balio du.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- ✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

LEITZA

Azkeneko Udal-batzarrean, mendi-larretako proiektua onatu zen

MIRENTXU

Orain 3 urte baserritarrek bere proiektua aurkeztu izan arren, orain Udalak onartutako guziz bestelakoa izan da.

Onartutakoarekin, baserritarrak zenbait puntutan ez daude ados: hala nola itxituak eta pistak egitea alferrikako inbertsioa ikusten dute, horretaz gain itxitu horietan sartzeko kuotak eta baldintzak jartzearekin batera abereen jabeen artean enfrentamenduak sor daitezke.

Denak, Udala eta baserritarrak

mendia hobetzearekin egiten dute bat eta horretarako behin baino gehiagotan baserritarrek deitu izan dute Udala, baina hau, inoiz ez da agertu arazoa eztabaidatzera. Baserritarrek errekurtsio bat aurkeztu zioten Udalari baina ez zen onartu. Ondoren Udalak bere arauak onartu nahi zituen baina hau ez zuen lortu batzarrean baserritarrek bere haserrea ozenki azaldu zutelako. Arratsaldean egin zen beste Udal Batzarrak, eta arauak onartu egin ziren. Orain, Nafarroako Boletín Ofizialean agertu eta gero, errekurtsioetarako epea zabalduko da.




GOIZUETA

Ekainaren 30ean kantaldia izan zen Elizan

M.K.T.

Iruñeko "Nuestra Señora del Río" Parrokiako koralak emanaldi bat eskeini zuen parrokian. Korala hau 25en bat lagunez osaturikoa dugu eta saio bikaina izan zen eskeini zutena.

Jende franko bildu zen elizan talde hau entzuteko asmotan. Meza ondoren zortziren bat kantu latinez eta euskaraz kantatu zituzten Jose Javier Aizkorberen zuzendaritzapean, mezan ere parte hartu zuten Aita Madinaren Aita Gurea kantatuz. Esan, talde honetan emakumezko solista, oso dotore aritu zela.



Herri arteko txapelketa

Txapelketa honetan, Irurtzunen kontra irabazi ondoren, Goizueta final erdietara pasatuko da eta Bera eta Lesaka arteko irabazlearen kontra aritu beharko du laister. Txapelketa honetan jokatu duten jokalaririk hauexek ditugu:

Ttikietan: Aimar Olaizola eta Aitor Apezetxea, *Infantiletan:* Asier Olaizola eta Xabier Berroeta, *Gazteetan:* Jose Moreno eta Aitor Mutuberria, *Helduetan:* Agustin Loiarte (ordezkoa) Juantxo Apezetxea eta Migel Angel Salaberria.

Jantzigintza ikastaroa akitutzat eman zen afari batekin

Urdazubi, Zugarramurdi eta Ainhoako 20 emakume aritu dira

ALIZIA OLAIZOLA

Ikastaroa hau joan den irailan hasi zen Urdazubi, Zugarramurdi eta Ainhoako hogeï emakumek, parte hartzen zutelarik. Astean bi egunez eta arratsaldeko 3etatik 5,30etara bildu dira urtean zehar Leorlaseko auzoan.

Emakume hauen irakaslea Anastasi Bidart, Urdazubiarra genuen.

Ikastaro honi behar bezalako bukaera emateko afari bat antolatu zuten Armua jatetxean.



Ikastaroaren azken egunean... pastelak

Urdazubi eta

Zugarramurdiko eskolako haurrek azken eguna besta batekin ospatu zuten

Beste herrietako neska-mutilak bezelaxe hemengoek ere bere ikastaro amaire zela eta azken eguneko besta egin zuten. Goizean antzerkia eta txontxongilo emanaldi bat ikus-

teko aukera izan zuten, eguerdi aldean eta Urdazubiko frontoian bazkaldu zuten honen ondoren Orabideako akordeolaria den Joxe Anjel Elizalderekin piztura haundi bat pasatu zuten.

Ekainaren 17an, komunioak egin ziren

Bederatzi urteko hamairu mutil eta bat edo bertze zortzi urtekoak, komunioa egin zuten ekainaren 17an.

Elizkizunak "San Salvador" elizan izan ziren Don Justino erretorea-ekin. Meza ederra izan zen eta ondotik, bertze urtetan bezala, prozesioa egin zen.

ZUGARRAMURDI

1990erako Udal aurrekontua

57.708.522 pezetatakoa izanen da

KORO IRAZOKI

Sarrerak: • 1989 urtean gelditu zena: 5.996.796 • Lur, abere eta etxeen zergak: 1.950.000 • Kotxeen zerga: 500.000 • Iberduerok ordaindua: 80.000 • Urak: 900.000 • Saneamenduko kanona: 150.000 •

Mataderia: 10.000 • Lezeen sarrera: 3.940.000 • Pinoen salketa: 9.000.000 • Diputazio eta Estatuak bidalitakoa: 5.750.000 • Bankuko interesak: 10.000 • Herriko Etxearen errenta: 694.850 • Karrikak konpontzeko hartuko dena: 39.866.606 pezeta.

Gastuak: • Pistetako obrak: 1.665.657 • Mediku eta sekretarioa: 1.968.700 • Mediku eta sekretarioaren etxearengatik: 84.000 • Alkate eta zinegotziak: 176.000 • Familia eta Sanitari laguntza Diputaziorat: 35.000 • Seguruak: 1.000.000 • Mediku eta sekretarioaren ordekoak: 132.000 • Organista: 57.700 • Ofizinarako gastuak: 250.000 • Uda-

(bertze aldean segitzen du)





letxe, eskola, mediku kontsulta, lezeak eta kanposainduko zaintzeak: 1.000.000 • Aintzinekoen elektrizitateak: 515.000 • Aintzinekoen tele-

fonoak: 110.000 • Eskolako berogailuak: 85.000 • Komunaleko seguroak: 6.000 • Langileen jan-neurria: 103.000 • Karriketako argien lanpa-

rak, uraren kloratzeak, basuraren untzien erosketak: 425.000 • Gorderlari, udaltzain, suhiltzaile, garbitasunak, eta depuradora eta eskolako berogailuen kontratoak: 1.030.900 • Juzio eta abokatuak: 300.000 • Hauteskundeak: 10.000 • Bazkari eta aperitiboak: 450.000 • Bankuko transferentziak: 6.000 • Karriketako argien konpoketak: 400.000 • Bide-iturri, errekestali eta kanposainduaren zaintzeak: 1.600.000 • Udaletxeko altzariak: 100.000 • Ez-usteko gastuak: 500.000 • Bankuen interesak: 1.165.256 • Saneamenduko kanona: 150.000 • Bestetako laguntza: 200.000 • Beste subentzioak: 101.000 • Karriken konpoketak 52.366.606 • Prestamoen amortizazioa: 1.700.433 pezeta.

SARA

Hemen ditugu udatiarrak!

OLAIN ELKARTEA

Bi hilabete elkarrekin pasatu behar, eraldi goxo eta txar batzuekin, denek dakigun bezala. Txarrak bazterrerat utz ditzagun eta hobere-nak aipa.

Herriko elkarte gehienek eguraldiaz eta jendeaz probetxu hartuz ekitaldi frango antolatzen dituzte aratsalde eta arasetan.

Dela Sarako Izarreko Rugby edo Pilotako elkarte, Sarako Indarreko taldea edo Zazpiak Bat dantza taldeak, denek zerbait egiten dute: hameketako, dantza emanaldi, afari, indar joko, josteta... zuek hauta!

Ekitaldi horiei esker egin mozkinak emaiten diote bertako elkarteei



bizi. Horietaz kanpo, Larrun gainerrat igaiteko parada badute bai trenez, bai oinez.

Mendizaleek aurki dezazkete ere ibilaldi seinatuak inguruetarako mendi eta tontorretan barna. Leizetako itzulia ere egitekoa da bainan plazan bertan zabalik den pilotaren inguruko erakusketari so egiteak ere balio du.

Bururatzeko ez litaik e ahantzi behar egunero idekia dela herriko piszina. Udatiarrak heltzearekin, plaza eta Sarako bazterrak alaiturik gertatzen dira.

Saratarrek ez ote ginuke orain erabiltzen dugun karro sasoinetik kanpo egiten diren ospakizunetan gehixago parte hartuz erakusten ahal...

EZKONTZAK

Jose Luis Apeztegia eta **Mari Carmen Lasaga**, Iruritakoa eta Iturengoa, ekainaren 30ean.

Jose Maria Tolosa Goikoetxea eta **M. Pilar Burlada Etxebeste**, Beran, apirilaren 7an.

Juan Jesus Ortega Maso eta **Concepcion Altzuguren Telletxea**, Beran, maiatzaren 5ean.

Fco. Javier Gallego Conde eta **Isabel Sanchez Gonzalez**, Beran, ekainaren 16an.

Jabier Andueza Oskoz eta **Beatriz Etxebeste Erasun**, Doneztebe eta Californiakoa, uztailaren 21ean.

Jose Fermin Erviti Arrizurieta eta **M. Asuncion Goienetxe Maritxalar**, Leitza eta Lesakakoa, uztailaren 22an.

Fco. javier Astiz Goldaraz eta **Garbiñe Barquilla Zabaleta**, Leitza eta Donostiakoa, Uztailaren 21ean.

JAIOTZAK

Nerea Leitza Apeztegia, Berakoa, apirilaren 3an.

Joseba Garmendia Iparragirre, Berakoa, ekainaren 17an.

Maria Jesus Elgorriaga Oiarzabal, Lesakakoa, uztailaren 9an.

HERIOTZAK

Sabas Baleztena Mariezkurrena, Zubietan, uztailaren 7an, 86 urte.

Juan Dozogaratz Olariaga, Beran, ekainaren 28an, 77 urte.

Fermina Lizarreta Sanzberro, Elgorriagan, uztailaren 6an, 79 urte.

Eulogio Migeltorena Andiarena, Donamarian, uztailaren 10ean, 65 urte.

Jean Baptiste Etxebeste, Saran, ekainaren 19an, 54 urte.

Marianne Otondo, Saran, ekainaren 26an, 94 urte.

Marie Sathiq, Saran, ekainaren 29an, 84 urte.

Mertha Itxuribehere, Saran, uztailaren 1ean, 60 urte.

Migel Ariztia, Urdazubin, ekainaren 14ean, 75 urte.

Jose Migel Canfranca, Leitzan, uztailaren 6an, 73 urte.

Miguel Rubia, Leitzan, uztailaren 8an, 18 urte.

Joaquina Igoa Irigoien, Lesakan, uztailaren 8an, 88 urte.

Juan Bautista Yanci Iturria, Lesakan, uztailaren 10ean, 77 urte.

AROZ BERRI

Nekazal tresneria

Ferrari traktoreak,
18 CVtik 50 CVrakoak

TFNOA.: (948) 58 10 21 IRURITA



Dena prest Elizondon, Baztandarren Biltzarra - 90 ospatzeko



Aurtengo edizioak ere, Nafarroa Euskalerrria izanen du lematzat

Uztailaren hogeita-bian, aurtengo Baztandarren Biltzarra ospatuko da Elizondon. Besta orain dela hogeitazazpi urte sortu zen, nahiz eta urte haue-tan zehar zenbait aldaketa izan, oinarriak mantendu dira: orga apainduen desfilea, bazkaria eta arratsaldeko jaialdia. Aurtengoan, zenbait berrikuntza izanen dira: Herri Kirolak, desfile koloretsua, Baztandarren Biltzarreko Elkarte kide berriak egitea,...

Izen deiturik gabeko historia

Baztandarren Biltzarraren historia ez daukagu izen nagusi bat, hau da "lider" bat; herri baten historia izan delako. Protagonistak beti bere biztanleak izan dira, bere musika, dantza eta ohiturak mantenduz eta erakutsiz. 1963. urtean, zenbait gazte Aralarreara bidai bat egin zuten. Han, bazkalondoan, kantu eta irrien artean, udako bestez solasten ari diren bitartean, norbaitek galde egiten du "zergatik ez egin besta bat **ba-lara guzirako?... eta Baztandarren Biltzarra deitzen badiogu?**".

Mendi ospetsu hartan sortuko da ideia eta lehendabiziko Baztandarren

Biltzarra urte hartan bertan ospatuko zen, bere meza nagusi, orga apaindu eta bazkariarekin,... akordeoi eta txistuaren soinuak atzendu gabe. Juan Erasok abesti hau eginen du: *Baztandarrek / hemen gaude / bihotzak zabalik / deneri erraiteko / ongi ongi etorri*.

Urte hartan 500 bazkide elkartu ziren. Orga apainduen artean, Lekarotzekoa nabarmendu zen. Baztango armari erraldoi baten irudia egin zutelarik. Hurrengo urtean, gaztedi gehiagok parte hartzen du. Lehengo ediziotan, Baztandarrendako izanen da besta, ia ia kanpotarrik gabe. Baina, 1969. urtean, milaka lagun bildu zi-

ren, zazpi herrialdeetatik etorriak. Urte hartan, lehenengo aldiz Amaiurko herriak hartu zuen parte bertan, orduan sartu bait zen administratiboki Baztango udalerrian.

Hirutanogeiko hamarkada osoan, jende aunitz etorriko da. Garaiko egunkarietan diotenez, 20.000ren bat lagun hurbildu omen ziren. 1976. urtean, udalak, baimenak bakarrik eskatzen ditu eta gazteak dira antolatzaileak. Urte horretan, bazkarian, ikurriña jarriko da eta arratsaldean, Guardia Civilak bortizki ibiliko dira Elizondon ostatuak eta txoznak itxiaraziz. Baztango ikastolak, urte hartan ostatua jarria zuen.

1978. urtean lehen aldiz **“Bai euskarari”** lemapean ospatuko da besta. Lautanogeiko hamarkadan ere partizipazioa handia izanen da. 1984.ean, alkate zen Julio Iturralde, ez du utziko Baztango bandera desfilearen buru joaten. Zikiro jatean, 2.000 lagun bilduko dira. 1985.ean, Ikastolako gurasoek mahaiak eta aulkiak Balleko Etxearen ate aintzinean pilatuko dituzte, lokalen falta zela eta protestatzeko. 1986. urtean, Guardia Civilak merkatuko zelaian sartuko dira, 1.800 bazkalkide zaudenean. Detenitutako hiruak libre utzi arte, Elkarreak eginkizun guztiak suspenditzen ditu. Hurrengo urtean, **“Nafarroa Euskalerrria”** lemapean ospatuko da. Arratsaldean, kalejira bat egiten da istilurik gabe, azkeneko bi urteotan bezalaxe.

Aipagarria da 1988.ekoa. Urte honetan, besta hau egiten hasi zeneko 25. urteurrena ospatuko da, aintzineko egunetan hasita, zenbait kultur eta kirol eginkizun eginen direlarik.

Aurten, berrikuntzak

Bertze gauzen artean, zozketa desagertuko da. Lehengo urteetan



Hasierako urtetan ateritako argazkia

kotxe bat zozketatzen zen eta azkeneko hauetan berriz, milioi erdi bat. Aurten, Baztandarren Biltzarra Elkarrearen kide izateko txartelak salgai jarriko dira; 500 pzt. helduentzat eta 300 haurrentzat.

Herri kirolak ere izanen dute tokirik: harri-jasotzaile, soka tira, txingak, e.a. Orga apainduen desfilean, berriz, Baztan Ikastolako haurrak, Sunbillakoak, e.a. dantzatuko dira, kolorea eta haunditasuna emanez.



Ez da musika soinurik faltako egun osoan

Egitaraua

Larunbat gauean gau pasa izanen da Elizondoko Plazan eta txaranga karriz karriz. Igandean, 10etan meza nagusia. 11etan orga apainduen desfilea. 13etan, Elizondoko Plazan, ohitura den bezala, mutildantzak. Bi orduetan, herri bazkaria merkatu zelaian (txartela 1.500 pzt.). Ondotik jaialdia bertsolari, trikitalari, dantzari, abeslari eta abarrekin. Arratsaldeko 6etan, leku berean, Herri Kirolak eta ondotik dantzaldia.

Urte honetako Baztandarren Biltzarra iragartzen duen kartela, Ana Larrui Elizondoarrak eginikoa da. Hau, 25 kartelen artean suertatu da saritua eta bestaren egunean, zuzeko oroigarri bat emanen zaio sari modura.

Erran dezagun azkenik, Baztandarren Biltzarra Elkarreak, aurten goan, bi ostatu jarriko dituela Elizondoko Plazan eta baztandar eta gainerrako euskaldun guzciei dei egiten diela bestara etor daitezen.

MAÑONE


Josie eta Denise: Donezteben euskara ikasten ari diren iparramerikarrak

Haizak hi! Doneztebeko barnetegian Amerikatik euskara ikastera etorritako neskatxa bi bai omen daudela. Ah bai? Goazen bada zer dioten jakitera!

Horrelaxe abiatu gara IKA - Ikastarik Donezteben duen barnetegira eta hantxe aurkitu ditugu, irrifartsu eta hiztun Josie eta Denise, xarmantak bezain atseginak diren iparramerikatik etorritako neskatxa gazteak. Donostiako familia batetara etorriak dira aurtengo udapartean euskara ikasi asmoz, beuren bizilekuko Euskal Etxearen babespean. Lehendik ere egonak dira Euskalerrian, duela bosten bat urte "Oinkari" dantza taldearekin, honek Euskadin egin zuen biran.

Denise Indartek 22 urte ditu, Reno (Nevada-n) bizi da eta bere aintzinakoak Iparraldekoak dira, izan ere bere aita, gaztetan Amerikara artzain bezala joan zena Aldudekoa baita eta ama berriz Bankakoa. Ingenieritza ikasketak burutzen ari da. Jadanik hiru urte eginak dituelarik.

Josie Bilbaok 21 urte ditu eta Boisi, Idaho estatuan bizi da. Bere aintzinakoak Bizkaitarrak dira. Aitona hamairu urterekin joan omen zen Arietatik —Plentzia ondoan dagoen herri tippi batetik— eta artzain bezala zenbait urtez lan egin ondoren eta ostatu bat eta gero, egun "rancho" bat ba omen du non bizi den jubilaturik. Bere, amaren familia, berriz, Lekeitiarra da izatez. Ingeles literatura burutzen ari da Reno-ko unibertsitatean eta lehen lau urteak bukatuak ditu dagoeneko.



Zerk bultzatu dituen euskara ikastera galdetu diegunean, hona zer erran digun Denisek: "Guretzako euskal sustraiak eta euskal kultura oso inportanteak dira. Txistua jotzen dugu dantza egiten dugu eta euskal bestak antolatzen parte hartu. Euskara ge-

hiago ikasi nahi genuen eta horregatik etorri gara".


Lagunak erran duena baieztatu ondoren, zera erantsi nahi izan du Josiek: "Niri txikitan erraten zidaten —zu ez zara euskalduna euskara ez dakizulako— eta hori betidanik barnean gorderik izan dut eta horregatik euskara ikasi nahi izan dut be-

netako euskalduna sentitzeko”

Amerikan, kasu honetan, Idaho eta Nevada estatuetan Euskal Kultura bizitzeko eraz hitzegin nahi izan dugu eta hona zer kontatu diguten: “Nahiko sendoa da Euskal nortasuna gure herrietan, Boisi eta Renon. Baditugu Euskal Etxeak, dantza taldeak, euskal bestak antolatzen dira eta Euskalerritik joandako jendeak euskaraz hitzegiten dute, batez ere zaharrenak”.

Euskalerritari buruz duten eritziaz, eta nola ez? beraiengan sortu duen inpresioaz galde egin diogu: “Asko gustatu zaigu eta hemengo jendea ongi portatzen da gurekin, bizi garen familia eta denak. Baina batzutan zaila egiten da ezin badituzu zure sentimentuak behar bezala adierazi hizkuntza ongi menperatzen ez duzulako”. Bere lagunak errandakoari hau gehitu nahi izan du Josiek. “Gustatuko litzaidake berriro Euskalerrira itzultzea eta agian hemendik urte batetara itzuliko naiz ikasketak amaitu ondoren euskara ongi ikastera”.

Euskaldunak Amerikarrei buruz duten eritziaz ere hitzegin nahi izan digute eta hona honi buruz Josiek azaldu diguna: “Hemengo jende askori ez zaio gus-



Doneztebeko IKA Barnetegian izan ditugu Josie eta Denise hilabete batez

tatzen Amerika eta ezta ere Amerikarrak. Egia da Amerikarrek kalte asko egin dutela munduan zehar, baino batzutan defenditu beharrea aurkitzen gara zeren Amerikar guztiak ez dira berdinak eta han ere badago denetarik”

Honetxeekin eman genion amaiera elkarrizketaxoari. Solas gehiago ere



Josie Bilbao:
«Niri asko gustatzen zait musika entzun bidenabar paisaia begiratzuz autobusean bidaiatzea»

Denise Inda:

«Niretzako euskal kultura eta sustraiak oso inportanteak dira»



egin genuen baino denak ez ditugu hemen jarriko bada! Bakarrik erantsi, hurrengoan ia Amerikan ikusten genuen elkar erran genien elkarri eta, zergatik ez? nahiz eta zaila iduritu, agian gerta liteke. Mundua zabala izan arren, estuak baitira bere bideak!

PATXI LARRETXEIA

Josemari Irazoki, aurrerapen nabarmenak egiten ari duen atleta Beratarra

Azken urteotan kirol arloan Berak bizi duen egoera on horretan eta atletismoari dagokionez, Andoni Garbisu, Juan Manuel Irazoki, Bautista Teiletxea, Joxe Zubieta, Patxi Pikabea, Luis Mari Pikabea, Olga Oliveira eta abarrek osaturiko zerrenda luzeari 17 urteko adina duen Josemari Irazoki Ugartemendia-ren ize-na erantsi behar zaio.

Palmares bikaina

Duela bi urtetik hona Irazoki gazteak lortutako emaitzekin aurkez dezakeen palmaresa hau da: 60m eta 100m leunetan, kadete mailan, Euskal Herriko txapeldun 1988an; 60m leunetan, kadete mailan, Euskal Herriko eta Estatuko txapeldun, eta 100m guztizkoetan Nafarroako txapeldun 1989an; eta 60m leunetan Euskal Herriko txapeldun, 100m eta junior mailan —73.ean jaiotakoa denez, lehen urtekoa; besteak 72. eta 71.ean jaiotakoak dira— estatuko txapeldun, Brujas-ko —Belgika— Gimnasialdian eta 40 nazio artean, 5. 100mtan *foto finish* ez erabakiz eta 4. 4 X 100m txandakakoan, eta iragan uztailaren lehen, Italiako Macerata hirian, 1973.ean jaiotako Estatuko eta italiar hautatuekin batera garatutako nazioarteko atletismo elkarraldiaren barruan, 100m leunetan irabazle, aurtan.

Aurrera begira daukan egutegiaren arabera, hil honen 16an Sorian, junior mailan, 100mtan Estatuko txapelketan eta abuztuan Jerezen guztizkoetan estatuko txapelketan ere. Denborei dagokienez, bere mar-



Josemari Irazoki

karik hoberenak 6,9" 60mtan eta 10,8" 100mtan dira.

Abiadurarako gaitasuna

Futbola, futbitoia, eskubaloia eta pilotan, besteak beste, ari izan den Josemari Irazoki 1988an hasi zen seriooki atletismoan eta abiaduran bereziki. Horretarako, Lekarozko Ikastetxean daukan soinketa irakasleak test batzu egin ondoren, tarte laburreko lasterketarako gaitasuna erakutsi zuen, adierazitako arrakastarekin.

Abialari bezala tasunik nabarmenenak *irteerako leherpena, lasterrean ahalmena 40mtarako erraz lortzen dudan goren abiada*, dira Josemari-rentzat. Hala ere, gerorako ez dut helburu zehatzik, *hagitz gaztea naiz eta estatuko junior mailako txapelketan lehenen artean gelditzearekin nahiko dut*. Bartzelona-ko Olinpiadak aitzinean daudelarik, *liluragarria litzateke, baina hagitz zaila da; batzutan amets hori bada-*

rabilt burutan...; gainera, 92an 19 urte izanen ditut, egoteko eduki behar den gutxieneko adina eta, beltzaren bat edo beste ez baldin bada, 10,1"eko markarekin adin horretan ez dago ia inor; beti izan ohi da bakarren bat, tarteka; izan ere, niretzat dena litzateke, edozein atletaren helburu eta helmuga Olinpiada bat bait da, eransten du.

Hasieran ez bazen gehiegi presatzen, orain berriz egunero ordu t'erdiz ari ohi da, sei egun asteko. *Ez naiz aritu sakonkiegi; osasun jarraipen nahiko on egiten didate, zure ahalbide eta ahaleginak aztertuz*. Prestaketa psikologikorik ez du ohi izan, baina ordu erdiko egonaldi bereziak egiten ditu, *ez da beharrezkoa, alboko prestatzailea psikologo on bat izanez gero, nahiz eta zure ahalbideak handiak ez izan; egonaldi labur horietan lasterketari buruzko gauza anitzez hitz egiten dugu.*

Instalakuntza egokiak behar

Bera bezalako atleta gehiago atera ahal daitezen *pista onak dira beharrezkoak, baita perstatzaile onak ere, hori nik badaukat, deritzo Josemari-ki*. Bere ustez *alderdi hauetan jende ona dago baina, laguntzarik ez denez gero, ezin da atletismoan ari; ez dago pistarik, ez eta prestatzailerik ere; nik aurkitzeko zoria izan dut eta atletismoa gogoko daukana gainera. Ni atera naizen bezala, besteak ere atera daitezke; jendea ihardunen balitz, ziur nago aterako litzatekeela.*

ROMAN HARRIBILAGA

Edale tipoak

Badago sekulan alkohol-dun edaria edaten ez duen jendea, gutti gora behera 16 urtetik gora dituen ehuneko 15a.

Bertze batzuk berriz oso bakan edaten du, baina egunean gutti xamar edanez eta edaten duena kontrolatuz, gehiegi sekulan edan gabe eta osasunari kalte egitera iritsi gabenik.

16 urtetik goragoko jendearen ehuneko 6 edo 7ak gehiegi edaten du, pertsona hauen osasunari alkohola edateak kalte egiten die eta beren portaeran antzeman daiteke.

Populazio helduaren bertze 3,5a alkohol drogadiktoak dira — alkoholikoak — eta ezin diote edateari utzi ez bada medikoaren edo profesionalen laguntzarekin.

NAFARROAKO OSASUN
MENTALEKO TALDEA



ETXEBIZITZAK

-**Lesakan denda bat** transpasatzen da Bittirian. Tfnoa. 637404

-**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637466

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Elizondo Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Baztango Olabidean**, baserri bat dago salgai: lasaitasunez haundiko parajea. Belagi eta bertze hainbertze herri-lur erabiltzeko eskubi-dea. 58 90 11 tfnoa.

LANA

-**Iruñean** neska euskalduna behar dugu Iraitetik aurrera orduka etxeko lanak egiteko eta haur bat zainitzeko. Telefonoa 255121. Amaia Zubieta.

-**Elizondon**, ikasle bikainak OHO (EGB) klaseak emateko eskeintzen dira. Tfnoak. 581212-580772

-**Solfeo klaseak** emanen nituzke udan. Iturenen. Interesatuak deitu 594249 telefonora.

-**OHO klaseak** ematen ditut euskaraz. EGA titulua daukat. Tfnoa. 637136 Lesaka.

-**Lehenbiziko eta zortzigarren** maila arteko hurrei klaseak emate-

ko prest nengoke, uda aldean Iturenen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-**Bi neska gara** eta herrietako festetan lan eginen genuke; tabernetan, jatetxetan, etxeko lanetan, e.a. Deitu telefono hauetara: 510220, 610789

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi-zior-ekin. Tfnoa: 630108

SALEROSKETAK

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. 50.000 pzta. Tfnoa: 631188

-**Egurreen egindako jangela** bat saltzen dut: 2 armairu, mahai torneatua eta 6 aulki. 30.000 pzta. Ezkalo jauna 59 40 54 tfnoa.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

-**Denda batetan paratzeko** moduko estanteak, mostradoreak, e.a. saltzen dira. 637404 Lesaka.

-**Karate egiteko bi jantzi** berri saltzen ditut. 2 zenbakia duen tailakoa (7-8 urtekoentzat) eta 3 zbk.koa bertzea (10-11 urtekoentzat). Biak 6.000 pzta. Tfnoa: 63 00 02

-**Bizikleta bat erosiko nuke**. Bizikleta arrunta, neskentzat, oza eta merkea bada hobe. Zuk baldin baduzu, Zubietako tfno. honetara dei

ezazu: 59 46 29.

-**Mastin del Pirineo** txakurkumeak saltzen ditut. Txuriak dira, oso azkarrak eta dotoreak. 581212.

-**Erosten dut**: Baserriak, bordak, errotrak, argi indarreko zentralak (nuklearrik ez!), sagardoa egiteko tolaareak, gurdi zaharrak, teilak, tari-mak eta solibo zaharrak. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

DENETARIK

-**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

-**Ja Ja!** umeendako **Diskaren egilea** den Xabi Muguruza kontratatu nahi baduzue, deitu tfno honetara: (943) 63 09 50

-**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ainhoa. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.

HARREMANAK

—Berako txurrerarik garrantzi-tsuenari: hau "beste" txurreraren dei desesperatua da. Ikusten ez garenez... idatzi egin behar! Igantzi "Anti"-robasetas... ja, ja! (Ez sinistu). Ceřá la penúltima vé. Benetan ahaztezina da.

<p>ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.</p> <p>Testua:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>ttipi-ttapa</p> <p>Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188</p>	<p>ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!</p> <p>IZEN-DEITURAK</p> <p>HELBIDEA</p> <p>HERRIA</p> <p>ttipi-ttapa</p> <p>Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188</p>
---	--

G.M.G.

GAMARGA

MARMOLAK, GRANITOK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

IZOZTUEN ETXEA


• Janari izoztua
OTXEA S.L.

Biltegi frigorifikoekin

Santiago, 38

Tfnoa.: 45 21 65

ELIZONDO



VICON ongarriztatzaile
eta disko segadoren
banatzailea eskualde
osorako

- motoaitzurak, segamakinak,
ordeñadorak...

JUAN LARREGI Tallera

Santiago, 10


Tfnoa.: 58 08 98

ELIZONDO



ERAMAZU

ALDE GUZIETARA



LA CAJA RURAL
PONE EN SUS MANOS
TODAS LAS VENTAJAS VISA